



***Europa: Krisialditik Itxaropen Berri baterantz.  
Berrantolatzeko garaia.***

## ADIERAZPENA

**Sustatzen eta defendatzen dugun Europaren ideia herrien begien aurrean arrakaltzen ari da, eta talde politiko botereitsuak ari dira haren kontrako erasoan.**

Halarik ere, herrialde gisa, nazio gisa, lurralde gisa, hiritar gisa, Europaren batasuna da benetako askatasunerantz eta benetako burujabetasunerantz aurrera egiteko bide bakarra. Europako Batasuna erakunde antolatu, boluntario eta demokratikoa izan ezean, munduaren gorabeherak sufrituko ditugu, eta ez dugu inolako kontrolik izango.

**Europako batasuna defendatu beharra dugu baina, defentsa lan horretarako, ezinbesteko dugu aldatzea.**

Jabetzen gara hiritargoa gaur egun Europatik oso urrun sentitzen dela. Urruntze sentimendu horiek zuzendu eta gainditu behar ditugu. Krisi ekonomiko eta finantzarioak, gradu ezberdinetan Europako Batasuneko herrialdeetan 2008 urtetik hona garatu denak, hiritarren artean sortarazi duen uste eta sentimendua da Europak ezin diela arazoei erantzun bidezko eta iraunkorra eman. Bata bestearen segidan eratu diren Europako Kontseiluak gero eta ez-eraginkorrak izan dira, eta Europako biztanleengan sortu duten zalantza da Europa erabaki zuzenak hartzen ari ote den.

Alderantziz, Europak ahots bakar batez hitz egin behar du, aurre egin behar die aurrez aurre planteatzen zaizkion arazoei. Elkartasuna gaurko gizartean ez ezik biharko Europako Batasunean ere bada ezinbestekoa, etorkizuneko belaunaldiei oparotasuna eskaintzerik izan dezan.

**Elkarrekin, zerbait egiteko moduan egongo gara; banatuta, guztiz babesgabe egongo gara. Eta babesgabe bagaude, menderatu eta zapaldu egingo gaituzte.**

Europako Batasun berrantolatua nahi dugu, kontinente zaharreko herrientzat oinarritzko zutabe eta oinarri izango dena.

Berrantolatzen denean, Europako Batasunak oinarritzkoa denari begiratuko dio.

Berrantolatzen denean, lur planeta honetan daukan botereaz jabetuko da, bere botere hori garapen berritzaile eta orekatuaren zerbitzura egongo da; orekatua izateaz gain, etorkizuneko belaunaldiei errespetua erakutsiko die.

Berrantolatzen denean, hiritarrei emango die lekua bere erakundeetan.

**Europa aukeratzea burujabetza aukeratzea da.**

Gaur egungo Europa asmatu zen bi mendetan elkarren ondoan bizi ziren herrialdeen artean eman ziren gerratei amaiera emateko. Europaren fundatzaileek XX. mendeko milioika hildakoen izenean jardun zuten. Eta borrokaldiak gure kontinentetik desagertu ziren.

Fundatzaileen helburua zen mugak zabaltzearen bidez kontinentearen oparotasuna eta garapen ekonomikoa lortzea. Horren ondorio zuzena izan zen hiru hamarkadatan jarraian eman zen hazkundea.

Europari esker, argi eta garbi ikusi zen kontinente berean eta balore berberak partekatzen zituzten herrialdeetatik pertsonak eta merkantziak askatasunez zirkulatzea oso faktore indartsua zela bere garapenerako.

Sobiet batasunaren sistema erori zen, neurri handi batean, agerian geratu zelako eredu komunistaren eta Europako eredu liberalaren bizimoduaren arteko ezberdintasuna.

Mende amaieran, ordea, globalizazioaren zurrumbiloak eraginak ekarri ditu apurka-apurka Europa osoan.

Gure herrialde guztiek, ertainek eta txikiek, potentzia kontinentalekin alderatuta, aurre egin behar izan diote ezegonkortasunik eza ekarri duten indarren eraginari: multinazionalen botere ekonomikoa; botere finantzarioen hazkunde kontrol ezina, sarri askotan ikusiezina eta aurkigaitzak direla gogoan; ehunka edo mila milioiko biztanleria duten potentzia politikoaren berpiztea; biztanleria mugimendu erraldoiak; eredu kultural edo politiko-erlijiosoaren arteko gatazkak. Horiek faktore guztiek eramaten dituzte herriak burujabetza gaiez berriz ere arduratzera.

Burujabetza da gako politiko nagusia: herriek beren etorkizuna erabakitzekeo daukaten eskubidea da, erabaki askearen bidez beren etorkizuna hobetzekoa, halabehar historikoaren emaitza dela ematen duen egitate hori aldatzekoa.

Orain bai, era berean baieztatzen dugu Europako herriak engainatzea izango dela nazioarte mailako testuinguru honetan burujabetza hori herrialde isolatu batetik egikaritu ahal izango dutela sinestarazten saiatzea.

Munduaren martxa honetan nolabaitekeo eragina izango badugu, ezinbestekoa dugu baliabideak partekatzea eta erabakietan parte hartzea, burujabetza komuna sortzera begira.

Etorkizunera begira ez dago beste gai garrantzitsurik behar den eraginkortasunez bestela jorratu ahal izango denik: merkatu finantzarioaren arautze bidezkeo eta egokia, segurtasuna gorabehera espekulatiboaren aurrean, energia, ingurumen, klimari buruzkeo arazoaren kudeaketa sinesgarria, aurre egitekeo jarrera bat moneta, gizarte eta ingurumen arloetan eman daitekeen dumpingen aurrean, mugimendu demografiko kontraesankorren, migrazio eta integrazioaren kudeaketa zuzena. Gure etorkizunaren zerumuga horretan agertzen den ezer ezin izango da herrialdeetatik arautu, are gutxiago arrazoi historikoak direla medio, ezta potentzia ertainen bidez ere, hemendik eta hogeit urtera, zoritxarrez, Europako estatu bakar bat ere ez delako bera bakarrik munduko ekonomia handiaren artean egongo.

## **Europako krisia demokraziaren krisia da.**

Halarik ere, eta Europan ematen den paradoxa kezkarria izanik, hiritar eta herrien parte nagusi bat, Batasuna beren burujabetza egikaritzeko lehen aukeratzat jo beharrean, kontrako gauza balitz bezala hartzen dute, beren eskubideak kentzen dizkion mugatzat, hain zuzen.

Informazioaren mende honetan ezin baita demokraziarik gabeko burujabetzarik egon.

Hiritarrentzat iluna den boterea, herritarrengan identifikaziorik sortzen ez duten erabakiak hartzen ditu eta guztiz hedaturik dagoen sententzia da ez dutela erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzen. Horren aurrean, botere hori etengabe da auzitan jarria eta errefusatu.

Europako erakundeak hain dira konplexuak, ilunak eta sofistikatuak ezen hiritarrentzat guztiz ulertezinak baitiren, sarri askotan erakunde horietan lan egiten dutenentzat ere. Erronka benetan handiak dira Europaren beraren ideientzat ere.

Sistema teknokratikoaren jitoak ere lagundu du populismoa elikatzen eta indartzen. Beraz, Europaren berrantolatetari ekiteko orduan bi oinarritzko galderari erantzun behar zaie: Zein dira Batasunaren benetako helburuak? Zein da hiritarrek Batasun horretan daukaten benetako tokia?

### **I. Zein dira Batasunaren benetako helburuak?**

Batasunak atxikimendu askea adierazi duten Estatu eta herrien ordezkari gisa jarduten du. Estatu eta herri horiek beren borondatez eta irauteko asmoarekin batu dira eurek bakarrik izango ez litzuketen baliabideak, agintaritzak eta eragina izan ahal izateko.

Horrela izanik, Batasuna gidatzen duen printzipio nagusia subsidiarotasuna da; eta, horren arabera, bakoitzak eraginkortasun osoz egikari ditzake eta egikaritzen ditu toki, erregio eta nazio mailan dagozkion erantzukizunak, bere eskumenen barruan, betiere. Horrek ekar lezake estatuek edo erregioek eskuduntza batzuk berreskuratu ahal izatea.

Gure aburuz, Europak oinarritzkoenari ekin beharko lioke eta eguneroko bizimoduko hainbat kontu txiki arautzeari utzi, hiritarrei eragiten dietelako eta ezegonkortasuna sortzen dutelako enpresen esparru barruan.

## **1**

### **Aukeraketa egin duten herrialde eta hiritarrentzat, funtsezkoa da eurogunearen integrazio politikoa.**

Nazio eta herri hauetarako moneta bakarra egoteak suposatzen du aurrekontuen benetako konbergentzia eman beharra. Ondorioz, ezin da aurrekontuen konbergentzia eman, agintaritzak politiko partekaturik ez badago.

Zor nazionalaren auzia, zeinen ondorioak euro gune osoan jasaten ari diren, erabaki politiko partekatuta ireki beharra dago. Benetako elkartasun esparru izanik, Europako Batasunak ezin du onartu Europako herrialdeek elkar suntsitzea eta ahulenei bizkarra ematea.

Aldi berean, moneta gune bakarra egoteak, gune lehiakorrenetan jarduerak kontzentratzeagatik eta beste batzuetan jarduerarik ez egoteagatik sortzen diren desorekak saihesten dituelarik, aldi berean exijitzen du lurraldearen antolaketa sendo bat, jarduera horiek guztiak lurralde osoan era homogeenan hedatzea ahalbidetu eta bultzatuko duena.

## 2

**Herri eta hiritarrentzat, funtsezkoa da Europako lurraldearen zati handi batean produzitzeko gaitasuna indartzea eta berrezartzea.**

Horrek dakar ikerkuntza, berrikuntza teknologikoa eta produkzio prozesu berriak babestu beharra kontsumitzaileen aurreikuspen eta beharren esparruetan. Orain bai, arlo hauen parte garrantzitsu bat ezin da aintzat hartu aurrera egiteko Europa mailako estrategiarik gabe.

Esparru digitaletik bioteknologiara, nano-zientzietatik etorkizuneko sareetara, talde boteretsu eta handien kontra lehiatzen gara eta ezin izango diegu aurre egin elkartzen ez bagara. Eurogunearen lehentasun ekonomikoa bideratu behar da ETE, enpresari eta artisauentzako balioa sortzera.

Amerikako Estatu Batuetako "Small Business Act"-en antzera (Enpresa txikiarentzako legea) enpresa txikiarentzako arau bereziak ezarri beharko dira, maileguak jasotzeko eta merkatu publikoetara sartzeko erraztasunak eta aukerak emate aldera. Lehiaketa adimentsua, hazkundearen zerbitzura egongo dena eta, beraz, ekonomia globalean lehiatzeko gaitasuna izango duten Europako talde handien sorrera sustatu eta eragotziko ez duena.

Hori lehenetsi behar da lehiaketa arau absolutuaren gaineratik, elkarren kontra egitea sustatzen baitu Batasunaren baitan sektore edo taldeka bat egitea bultzatu beharrean. Europako aurrezkiak mugiaraztean bultzatu behar da Europa mailako funtsa sortzea eta funts hori industriara bideratu behar da jarduera ekonomikoa biziberritzera eta indartzera begira.

## 3

**Funtsezkoa da Europako eredu soziala aldezte eta sustatzea, sarri askotan Europako produktoreei ezartzen dizkiegun arauen eraginez egonkortasuna galtzera iritsi den arren.** Gainera, lehiakortasunaren izenean, gure lurralde eta merkatuetan onartu ditugu munduko beste erregioetatik datozen eta arau horiek errespetatzen ez dituzten produktuak.

Horrek gure hirikideen artean sortzen du erabat ulergarriak diren arbuioa eta aurka egiteko gogoia. Elkarrekotasun printzipioek eta klausula sozialek eta ingurumenari buruzko klausulek izan beharko dute, gero eta gehiago, komertzio askerako akordioen giltzarri nagusiak eta arlo guztiak arautu beharko ditu proportzioan oinarritutako lankidetzak.

Funtsezkoena da erregioen arteko desberdintasunak murriztea. Beharrezkoa da egiturazko funtsak sortzeko politikekin jarraitzea egoera txarrean dauden erregioen hazkuntza ahalbidetzeko eta, aldi berean diru-laguntza horiek eraginkortasunez erabili beharko dira.

#### 4

**Funtsezkoa da nork bere burua aski izateko eta segurtasun energetikorako estrategia,** sareen integrazioa eta hornikuntzen lankidetzaren erabatekoa barnean jasoko dituen. Energiaren Europako elkargoa proposatzen dugu, ondorengo printzipioetan oinarritua: Europako talde energetiko askotarikoa eta hornikuntza iturri askotarikoa ezartzea, elkarri laguntzeko mekanismoa energia urria denerako.

Beste alde batetik, energia fosiletara itzultzea guztiz pentsa ezina da. Ondorioz, gure ikerkuntza eta garapen politikak bideratu behar ditugu energia berriztagarrien produkzio eraginkorrera, ikerketekin jarraitzen dugun bitartean, gaur egungo edo etorkizuneko aztarnategiak egokiro ustiatzera begira.

#### 5

**Funtsezkoa da lur planeta defendatzea eta eguraldiaren aldaketaren kontra borrokatzea.**

Estrategia Berdea oso handinahia izan da paperean, baina ez da behar bezain eraginkorra izan emaitzak lortzeko orduan. Isurpenak murrizteko helburu berriek, energia berriztagarriak erabiltzeak eta 2030 urterako gaitasun energetikoak izan behar dute Europako berrikuntza, enplegu eta hazkunde iraunkor eta jasangarrirako zutabe nagusiak, mundu mailako lidergoa lortzera begira Kioto ondoren eman den paralisari aurre egiteko eta gure aurreikuspen ekonomikoak sustatzeko.

#### 6

**Nazioarteko testuinguru berri funtsezkoak dira kanpoko politika eta segurtasun politika.**

Ziber-delinkuentzia eta terrorismoa moduko erronka berrien ondorioz sortu den beharrezkoa da. Ezinbestekoa da estatu kideen indar armatu guztien baliabideak partekatzea, baliabideak xahutzeari uzteko eta eraginkortasun ezarekin amaitzeko.

Europa mundu mailan eman diren azken gatazketatik at egon da, eta une honetan ahots bakarra izan behar du nazioartean, aintzat hartua izatea nahi badu. Aldi berean, bere kanpo politika Europaren berezko baloreak sustatzeko tresna izan behar du, hau da, giza eskubideak, demokrazia eta ekitatea garapen ekonomikoan.

Oro har, Batasunak ekialdeko herrialdeekiko lankidetzaren politika indartu beharra du. Zentzu honetan, Georgia eta Moldaviarekin izenpetutako akordioak norabide onean emaniko urratsak dira, oraindik ez nahiko diren arren. Hiru zirkuluko Europa nahi dugu: euroguneko herrialdeetatik eta Europako Batasuneko herrialdeetatik harago, "interes partekatuen zirkulua" giza eskubideetan, demokrazian, aniztasunean, merkatuko ekonomia sozialean eta bizitza mailan Europako estandarretara hurbildu nahi duten herrialdeekin.

## 7

### **Funtsezkoa da borroka bidezko eta eraginkorra inmigrazio ilegalaren dramaren kontra.**

Europak behar besteko aurrekontu eta baliabide operatibo eta legalak izan behar ditu babeserik gabeko eta inmigrazioari buruzko politika komunaren barruan jardun ahal izateko. Izan ere, printzipio horiek indarrean daude 1999 urtetik.

Premiazkoena da Europako kostazainen kidego bat eratzea Batasuneko kostetako mugak zaintzeko eta, Gobernu Kanpoko Erakundeetako kideen aurrean, Mediterraneo itsasoan jitoan doazen itsasontzietan doazenak erreskatatzeko eta batzeko.

Europa ezin da mundura itxita dagoen gotorleku bihurtu, baina atek ere ezin ditu zabal-zabalik izan, giza trafikatzailen mende.

Europak elkarrekin garatzeko politika behar du, zeinen bidez denok irabaziko dugun, guk eta gure kideek, bereziki Afrikak: inmigrazio arautua onartu behar du, herrialde eta erregio migratzaileekin lankidetzan, ez beraien kaltetan.

## 8

### **Funtsezkoa da Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) indartzea eta eraberritzea.**

Elikagaien nahikotasunari emaniko lehentasunari eustea, ingurumena errespetatuko duen nekazaritza ahalbidetuz, produktuen kalitateari, trazabilitateari, elikagaien segurtasunari eta karbono aztertari eutsiko diona, diru-laguntzen beharrik gabe esportatzeko gai izango dena.

NPBk produkzioa ez ezik abandonuak eta narriatze hidrológicoak mehatxatutako lurrak eta produktore sareak defendatu eta babestu behar ditu. Gure gizarteek, orekari eutsiko badiote, ezinbesteko dituzte familien ustiapen bideragarriak.

NPBk nekazaritzako produkzioa prezio egokian ordaintzea ahalbidetu behar du, nekazariak ondo bizi daitezzen zerbitzu publikoek emaniko laguntzak jaso beharrik gabe.

Une oro bete beharko litzateke laguntzen banaketa orekatuagoari eusteko araua. Nekazaritza Politika Bateratu indartsu bati eusteak ez luke ekarri behar lur planetako garapena kaltetzea.

## 9

### **Funtsezkoa da diskriminazio era ororen kontra borrokatzea.**

Emakume eta gizonen soldatetan eta erantzukizun banaketan gaur egun ematen diren desorekek iraganeko gauza izan behar dute. Europako Batasunak ere enpresetan sustatu behar ditu soldaten berdintasuna eta erantzukizun banaketaren oreka.

Europako Batasunak diskriminazioa borrokatu behar du, baita orientazio sexualagatik edo generoagatik eman daitekeen indarkeria oro ere.

## 10

**Funtsezkoak dira gure kontinentea aberasten duten aniztasun kulturala eta hizkuntzen aniztasuna**, gure historia, gure hiriak eta erregioak. Jarraipena eman beharko litzaieke Europako Batasunaren baitan 90. hamarkadan garatutako jardueri.

Estatu kide ezberdinetako kulturen garapenari laguntzea da gakoa, beren nazio eta erregioen aniztasunari dagokionez eta kultur ondare hori denona dela argi utzirik.

Artea sortzeko sektorea sustatu beharko da Europatik kanpoko lehiakideen botere ekonomikoari aurre eginez.

Garrantzitsua ere bada Europako estatuak zinemari eta ikus-entzunezko sektoreari ematen zaizkien laguntza sistemei eustea.

## II. Aurrerabide demokratiko erabakigarria

**Helburu nagusia da hiritarrek Europako erakundearen egituraketarekin bat egitea eta benetan parte hartzea erabakiak hartu aurreko hausnarketa prozesuan.**

Parlamentariak prozesu demokratikoan aukeratzen dira eta Parlamentua da Batasuneko hiritarrek eurek hiritarrentzat zuzenean aukeratzen duten erakunde bakarra: erakunde horren eginkizuna indartu beharra dago. Horrek dakar oraingoa baino botere legegile handiagoa izan behar duela, gaur egun ez duen ekimen eskubidetik hasita.

Batzordearen eginkizuna da koordinatzea eta betearaztea. Esku hartzeko eginkizun hau eskari bidez eta Parlamentuak eta Kontseiluak ezarritako markoaren barruan egikaritu behar da. Esku hartzeko modua sakontasun osoz berraztertu beharra dago. Esparru guztietan epaitzen eta ebazten duen organotzat hartua izateari utzi behar dio, sarri askotan nazio eta erregioetako testuinguruak aintzat hartu gabe egiten delako, oso atzerapen arriskutsuekin, gainera.

Europako hauteskondeen kariaz Batzordeko Presidentziarako hautagaiak izendatzeak, hautesleak adiago egotea ekar lezake. Gardentasuna hobetu beharra dago: guk proposatzen dugu Kontseiluko Presidentea eta Batzordeko Presidentea pertsona bera izatea. Horrela, Europako benetako liderra izatea nahi dugu, demokratikoki aukeratua, ordezkatzailerak eta eraginkorra.

Europako Kontseilua Europako herrialde guztietako ordezkari legitimoek osatzen dute, Europako herrialde guztiek ezagutzen eta aitortzen dituztenek. Beren jardueri gardentasuna eman behar diegu, hiritarrei bere jarduerak publikoak berri emanez testuinguru demokratikoan, era guztiz garden eta ulergarrian. Batasuneko estatu buruei eta gobernu buruei zuzenean beren irizpideak azaltzen eta beren konpromisoak iragartzen entzuteak ahalbidetuko du hiritarrek ordezkariak ulertzea eta babestea.

Proposatzen duguna da, larrialdi kasuetan salbu, Batasunaren erabakien agenda hiritarrek eta eurak ordezkatzeko dituzten erakunde politikoek edo elkarteek alde aurretik ezagutzea.



## ***Berrantolatzeko garaia.***

Europa bidezko, ireki eta dinamikoa nahi dugu. Munduak bere kultura eta baloreengatik miretsiko duena. Bere praktika politikoagatik errespetatua izango dena.

Europako hiritargoa iratzarri nahi dugu Europa batuaren ametsa urruntzen hasia delako antzinako amesgaiztoak berpizten ari diren aldi honetan.

XX. mendean zehar Europa demokratikoaren fundatzaileak animatu zituen izpiritu bera XXI. mendeko belaunaldi berriengan sortzea nahi dugu.